

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak kultur jarduerak antolatu ditu hamar gune turistikotan jai-zubi honetarako

"Kultur" programaren barruan, honako herri hauetan proposatu dira jarduerak: Agoitz, Mendigorria, Otsagabia, Erriberri, Azkoien, Gares, Erronkari, Zangoza, Bertizko Jaurerria eta Tuterako

Jueves, 11 de agosto de 2011


Nafarroako Gobernuak antolatutako kultur jardueren Kultur programa Foru Erkidegoko interes turistikoko leku berrietara iritsiko da. Asteburu honetan, emanaldiak izango dira Mendigorria, Tuterako, Erriberri, Erronkari, Otsagabia, Zangoza, Agoitz, Gares, Azkoien eta Bertizko Jaurerrian.

Ostiralean, abuztuaren 12an, 20:30ean, folk musika entzun ahal izango da Mendigorriako plazan, Mielotxin&Onarin

taldearen eskutik. Egun berean, Tuterako katedralean, 20:00etan, Gipuzkoako Judith Jauregi piano-jotzailea izango da. Erriberriko San Frantzisko elizan, berriz, Jasokundeko koruak kontzertua emango du 20:00etan. Azkenik, San Frantzisko Komentuko Klaustroan, Xavier Alvarez de Eulate aitaren pintura-erakusketa ikus ahal izango da.

Larunbatean, abuztuaren 13an, Daniel Gutiérrezek (pianoa) eta David Echeverriak (tenorea) bi kontzertu eskainiko dituzte 13:00ean eta 18:30ean, Erronkariko Julian Gaiarre Museoan; era berean, Herri Kirolen Nafarroako Federazioak herri-kirolen erakustaldia eskainiko du Otsagabiako plazan; Zangozan, berriz, "En Jota" kontzertuaz gozatzeko aukera izango da (jazz eta musika genero horren arteko nahasketa) Josetxo Goia Aribere eta Arantxa Diezekin.

Halaber, gogoratu nahi da jendearentzat irekita izango direla abuztuaren 29ra bitarte hainbat erakusketa Agoitzen, Garesen, Azkoien eta Bertizko Jaurerrian. Agoizko Kultur Etxean, Iñaki Bergera argazkilariaren erakusketa aurkitzen da; Garesko Vinculo Etxean Iker Serranoren lana ikus daiteke; Azkoieneko Kultur Etxean Juanjo Lazkanoren obra piktorikoa dago ikusgai; eta Bertizko Jaurerriko Jauregian Amaia



Judith Jauregi pianista Tuterako katedralean arituko da, 20:00etan.

Gurpideren mihiseak ikus daitezke.

## Interpretariak

Gure herrialdeko interpretaririk handiena izateko deitua, Donostiako **Judith Jauregi** (1985) bere generazioko proiektiorik handiena duen piano-jotzailea da dagoeneko.

Donostiako Kontserbatorioan Karrera Amaierako Ohorezko Saria eskuratu zuen, eta prestakuntza gehituko du Claudio Martinez-Mehner-ekin. Errusiako Vadim Suchanov maisu handiak apopilo gisa hautatutako artisten talde murriztuko partaide izatera iritsiko da Munich hiriko Richard Strauss Kontserbatorioan.

Errezitaldian soilik 11 urte zituela debuta egin ondoren, nazioarteko sari ugari irabaziko ditu, eta arrakasta handiarekin hartua izango da izen handiko jaialdietan; hala nola, Donostiako Musika Hamabostaldian, Peraladako Jaialdian, Granadako Musika eta Dantza Jaialdian edo Frantziako La Roche A'ntheron-go Nazioarteko Jaialdian.



Jose txo Goia-Aribek "En Jota" lana aurkeztuko digu, jotaren irakurketa berritzailea jazz klabean.

Judith interpretari handien zirkuitu murriztuan sartu da, eta ohikoa izaten da eszenatoki nagusietako programazioan; tartean aipatzekoak dira Bartzelonako Auditori, Madrilgo Zartzueta Antzokia, Bilboko Euskalduna Jauregia, Valladolideko Miguel Delibes Auditorioa, Malagako Filarmonika Sozietatea edo Jerezko Villmarta.

**Mielotxin** 2003ko udaz geroztik sortuko da, eta, handik ia urte batera, lekua izatea lortuko du Nafarroako koordinatzaile kulturalen programazioetan. Kritika oso onak jasoko ditu musika-proposamenaren orijinaltasun eta kalitatearengatik. Tradizioa eta lurraldeko musikarekiko konpromisoa modernitatearekin, sormenarekin eta kideen gaztetasunarekin elkartuko da.

2004ko maiatzean, lehen saria eskuratuko du Nafarroako Artista Gazteen Lehiaketako Musika Berriak atalean eta bigarren saria Illoran (Granada) egindako Eurofolk-ean.

2005. urtean, "Empápate" izeneko lehen lana grabatuko dute. 2006an, Prau Eszenatokiko (Kantabria) hirugarren saria lortuko du eta Ermuko (Bizkaia) Fokez Blai-ko lehen saria. 2007. urtean, lehen saria eskuratuko dute Mendebala-Sopuertako Maketen III. Lehiaketan "Almadierra" izeneko bigarren lanari esker. 2010. urtean, estudioko hirugarren diskoa egingo dute, "Cuando la beharra obliga"; izenburuan gure aitonaonek gerraostean, beharrak edo premiak garaia markatzen zuenean, erabiltzen zuten esaera aipatu nahi da. Errepertorioak Mielotxinen izpiritua berriro erakusten digu; hau da, euskara/gaztelera, egilearen abestiak/abesti tradizionalak, instrumentalak/ahozkoak,... batera elkartzen dira lurraldeko herri-musikaren ikuspegiarekin, eta hori XXI. mendean.

**Iruñeko Jasokundearen Korua** duela 15 urte hasi zen abesten, Francisco Villanuevaren zuzendaritzapean. Parte hartu du Torre viejako Habaneren Jaialdian, Tolosan, Ejea de los Caballerosen, e.a., eta sari garrantzitsuak lortu ditu.

2011. urtean, Metz hiriko (Frantzia) katedralean eta Luxemburgekoan abestu du.

Nafarroako **Jose txo Goia-Arrib**e konpositorearen musika-proposamen berria, "En Jota", herri genero horren irakurketa berria eta berritzailea da. Uribek jota jazzaren lurraldeetara eramango du. Taldea kontrabaxuak, pianoak, saxoak eta ahotsak berak osatuko dute. Dozena bat titulu sortu-berriak abestuko dituzte melodien ordu batean gutxi gorabehera, euskarri harmoniko berrieekin. Arantxa Diez (Tafalla) ahotsean, Javier Olabarrieta (Iruña) pianoan eta Baldo Martinez (Madril/Galizia) kontrabaxuan arituko dira, eta horiek osatuko dute Nafarroako konpositore eta saxofonista honen taldea.